

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5086

*793/2022 EBAZPENA, azaroaren 7koa, Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko Ebakuntza-gelako Gainbegirale lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia egiten den.*

Laster, Bidasoko ESIko Ebakuntza-gelako Gainbegirale lanpostua hutsik egongo da. Hori dela eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori prozedura librez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek. Hona hemen

#### OINARRIAK

##### 1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

- Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan langile finkoak izatea (estatutupekoak, funtzionarioak edo lan-legepeko kontratudunak) eta lanpostua jabetzan izatea B1 lanbide-taldean.
- B1 lanbide-taldeko titulazioa izatea.
- Gutxienez 3 urteko lan-esperientzia B1 lanbide-taldean.
- Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren eta Osakidetzako Euskara Planaren gainerako betekizunak.

##### 2.– Kontuan hartu beharreko merezimenduak.

- Unitatea kudeatzeko memoria-proiektua egitea.
- Taldeen antolaketan eta kudeaketan esperientzia eta/edo prestakuntza izatea.
- Ezagutza ofimatikan: Word eta Excel.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

##### 3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta hori garatzeko arauetan aurreikusitakoaren arabera baloratuko da.

##### 4.– Eskabideak aurkezteko epea.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko ESIko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (Zubieta finka, Mendelu auzoa z.g. 20280 Hondarribia).

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, Ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan ere aurkeztu ahal izango dira.

Interesdunek Bidasoko ESiko Langileen Zuzendaritzara bidali beharko dute eskabidea, datu pertsonal guztiekin batera (Zubieta finka, Mendelu auzoa z.g., 20280 Hondarribia).

Agiriak honela aurkeztu behar dira:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionarioen edo estatutupeko langileen izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-legepeko kontratudun finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agirien fotokopia konpultsatua.
- Kontuan hartu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.
- Unitatea kudeatzeko memoria-proiektua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazitako moduan egiaztatzea CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta agertzen diren alderdiak, nahiz eta hori izangaiaren eskabidean jaso beharko den.

#### 5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskabideak baloratzeko eta hautagaiei jakinaraziko zaie.

Batzordeak, eskabideak aztertu ondoren, izangaiei jakinaraziko zaizkien eginbide osagarriak egitea erabaki ahal izango du.

Izangaiak baloratu ondoren, proposamena egingo da, izendapena formalizatzeko. Epaimahaiak, txosten arrazoitua egin ondoren, hutsik uztea proposatu ahal izango du, baldin eta izangaiek ez badituzte eskatutako baldintzak betetzen.

Batzordearen bilera bakoitzaren akta egingo da. Bertan, honako hauek jasoko dira: aurkeztutako izangaiak, egindako eginbide osagarriak (halakorik balego), eta horietako bati lanpostua esleitzeko edo, hala badagokio, deialdia hutsik uzteko kontuan hartutako arrazoiak.

#### 6.– Hautaketa-prozedura.

Inola ere ezingo dira merezimendutzat hartu deialdia EHAAan argitaratzen den egunean aurkeztu ez direnak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

#### 7.– Lanpostuaren eginkizunak.

Profesional-talde bat gidatuko du. Zuzenean Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Zuzendaritzaren mende dagoela, zeregin hauek izango ditu:

- Ebakuntza-gelako erizaintza-zerbitzua planifikatzea, zuzentzea, koordinatzea eta kontrolatzea.
- Kirurgia-arloa gainbegiratzea, erizaintzako langileen jardunaren eraginkortasuna eta efizientzia behatuz eta egiaztatuz.
- Erizainaren figura sustatzea, zainketak eman ditzan kontzeptu zabalenean.

2022ko azaroaren 24a, osteguna

- Protokoloak diseinatzen, koordinatzen eta ezartzen laguntzea.
- Zerbitzuko adierazleen jarraipena egitea.
- Indarrean dauden protokoloak ebaluatzea.
- Zerbitzuaren berezko lan- eta komunikazio-sistemak ezartzea.
- Jakinarazitako edo hautemandako arazoak konpontzea.
- Unitateko langileen estaldura, karteldegia eta absentismoak kudeatzea.
- Profesional berriak hartzea, harrera-planaren arabera.
- Taldearen garapena kudeatzea: zerbitzuko langileen prestakuntza-beharrak identifikatzea.
- Mantentze-lanen parteak kudeatzea eta horien jarraipena egitea.
- Materiala eta farmakoak eskatzea.
- Produktu eta material berrien jarraipena egitea.
- Kexak, erreklamazioak edo iradokizunak kudeatzea.
- Asistentzia-jarduera egitea, ezagutzak eguneratuta edukitzeko eta zerbitzuaren teknika eta prozeduretan trebetasuna mantentzeko moduko maiztasunarekin.

#### 8.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena.

Hemen hasten den prozedura (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko ESIko zuzendari-gerentearen ebazpenaren bidez amaituko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, intranetean zein Osakidetzaren web-orri korporatiboan argitaratuko da.

Ebazpen horrek EHAAAn argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, bertan besterik xedatzen ez bada.

#### 9.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez daskioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hondarribia, 2022ko azaroaren 7a.

Bidasoko ESIko zuzendari-gerentea,  
JOSE AGUSTIN AGIRRE ARANBURU.